

EUSKAL AEKO INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2010eko abendua

Euskal AEko industri jarduera %0,3 hazi zen 2010eko abenduan


Euskal AEko industri produkzioa, azarokoarekin alderatuta %1,1 jaitsi zen

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2010eko abenduan %0,3 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2009ko hil beraren aldean. 2010 guztirako hazkunde-tasa metatua %1,8 izan zen, aurreko urtearen aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2010eko abenduan %1,1 jaitsi zen Euskal AEko industri produkzioa, azarokoarekin alderatuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua

%hazkundera



Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreka, industri sektore handien sailkapena kontuan hartuta, 2010eko abenduko indizearen bilakaerak honako aldakuntzak izan zituen, 2009koaren aldean: Ekipo ondasunak urte arteko %3,1 igo ziren; Bitarteko ondasunak %7,6; Energia %6,9 jaitsi zen; Kontsumo ondasunek %10,1 egin zuten behera, Kontsumo ondasun iraunkorrek (%-25,2) eta ez iraunkorrek (%-5,7) izandako jaitsieraren eraginez.

2010eko abenduan, azaroaren aldean, Ekipo-ondasunak %1,5 hazi ziren, eta Bitarteko ondasunak %0,3; Energia %0,2 jaitsi zen; Kontsumo-ondasunek %9,9 egin zuten behera, Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%-8,1) eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek (%-10,3) izandako jaitsieraren eraginez.

Abenduko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Gipuzkoan (%3,2) eta Bizkaian (%0,2); Araban %4,7 jaitsi zen. Hil arteko hazkunde-tasa positiboa izan da Gipuzkoan, %1,9; negatiboa Araban, %5,1, eta Bizkaian, %1,8.

2010eko industri jardueraren balantzea

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen balantzean %1,8ko igoera metatua dugu 2010ean.

Industri sektore handiek hainbat eratako aldakuntzak izan dituzte urteko metatuan. Energia %4,7 jaitsi zen eta Ekipo ondasunak %1,5. Bitarteko ondasunak %6,7 igo ziren eta Kontsumo-ondasunak, guztira, %1,7. Horien baitan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %9,6 jaitsi ziren, eta ez-iraunkorrak %5,0 igo, 2009. urtearen aldean.

2010ean metatutako aldakuntzak positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %0,1; Bizkaian %0,6, Araban %7,8.

Taula: 2010eko abendua. Euskal AEko Industri Produkzio Indizearen aldakuntza tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	10Abe/09Abe	At/At-1 (1)	10Abe/10Aza	10Aza/10Urr
Indize orokorra: Euskal AE	0,3	1,8	-1,1	2,3
Araba	-4,7	7,8	-5,1	4,5
Bizkaia	0,2	0,6	-1,8	1,5
Gipuzkoa	3,2	0,1	1,9	2,0
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-10,1	1,7	-9,9	1,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-25,2	-9,6	-8,1	-2,3
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-5,7	5,0	-10,3	2,5
Ekipo-ondasunak	3,1	-1,5	1,5	3,4
Bitarteko ondasunak	7,6	6,7	0,3	3,3
Energia	-6,9	-4,7	-0,2	0,9

(1) 2010eko urtariletik abendua bitartean eman den urte arteko aldakuntza tasa, 2009ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko datu-bankua](#)